

URUMEAKO **Kronika**

2016/05/30



PDF

HERNANI Maiatzak 30



Lehengo urtean ere, Sagardoetxeako sagastian egin zen emanaldia.

[albisteak//SAGARDOETXEA](#)

Murgiatarrak eta Santiomendiko familia batuko dituen antzezlanak, dantzak eta musikak jantzia

Sagardoetxeak, Musika Eskolak, Antzerki eskolak eta Astigar dantza taldeak bat egin dute aurten ere, Sagardoetxean antzerki musikatua egiteko; larunbatean, 17:30etan.

ASTIGARRAGA

2016/05/25 00:00 Asteazkena

Sagastiak Loretan, udaberriko jaialdiari bukaera emateko, aurten ere antzerki musikatua antolatu du Sagardoetxeak.

Larunbat honetan antzeztuko dute *Luis eta Eugeniaren* bikiak obra, 17:30etan hasita Sagardoetxeako

sagastian, Astigar dantza taldeak, Norberto Almandoz Musika Eskolako ikasleek eta Antzerki eskolako ikasleek.

Karmen eta Juantxo bikien bataio festa

Badira urte batzuk Sagardoetxea ikuskizun hau antolatzen hasi zela. Hasieran, kontzertua ematen zen sagastietan, baina azken hiru urtetan, antzezlan baten eszenatoki bihurtu da ingurua, herriko kultur taldeen parte hartzeari esker.

Lehengo urteko istorioari jarraipena emango diote larunbatean.

Lehengo urtean, Murgia familiaren jauregiko Markesaren familia eta Santiomendiko baserri bateko familia baten istorioa kontatu zuten, eta aurten jarraipena emango diote istorioari. Izan ere, iaz Luix, Astigarragako Goikoetxea baserrikoa eta Eugenia, Markesaren alaba ezkondu ziren, eta aurten, bikiak izango dituzte: Juantxo eta Karmen.

Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*

Bidali

Aurreikusi